



**EKAINAREN 27ko 7/2019 LEGEAREN, EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOKO POLIZIARI BURUZKO LEGEAREN BOSGARREN
ALDAKETARENAREN, LABURPENA**

2019ko ekainaren 27an onartu zen Eusko Legebiltzarrean 1992koa den Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen (urte horretako uztailaren 17ko 4/1992 Legea) bosgarren aldaketa.

Lege berri honekin “zenbait eraberritze partzial egiten dira, herritarrei –zeinei kontuak eman behar baitzaizkie– zerbitzua ematearekin lotutako kontuak indartzeko joera dutenak, oro har”, eta “ildo horretan, eraberritze honen bidez, sendotu nahi da zerbitzu polizialen txertaketa, irekia, plurala eta elebiduna den eta eskubideetan berdinak diren gizonezkoen eta emakumezkoen osatuta dagoen gizarte batean”.

Berrikuntza nagusiak hiru ardatzetan zehazten dira:

- ✓ Eredu poliziala indartzea.
- ✓ Polizia-kidegoetan berdintasunezko neurriak eta emakumezkoen presentzia sustatzea.
- ✓ Ertzaintzaren karrera profesionala hobetzea.

Laburpen honek lotura duenez Ertzaintzaren webguneko Berdintasun Politiken atalarekin, nahiz eta ondoren Ertzaintzarekin zerikusia duten eta legean jaso diren alderdien laburpen bat egiten den, hasiera batean polizia-kidegoetan berdintasunezko neurriak eta emakumeen presentzia sustatzearekin lotutako gaiak aztertuko dira; guztia legearen 47 bis artikuluan jasota dago.

Polizia-kidegoetan berdintasunezko neurriak eta emakumezkoen presentzia sustatzea

Legean “ekintza positiborako neurriak ezartzen dira emakumeak polizia-kidegoetan sartzeko eta polizian emakumeen kopurua handitzeko, gaur egun kopuru hori urria da-eta. Hala, polizia-kidegoetako emakumeentzako lanbide-sustapeneko planak arautzen dira, kidegoetan sartzean eta lanbide-karreran berdintasuna bermaturik izan dezaten, dagokiena baino daukaten ordezkariak iriagi hori zuzentzeko, eta poliziaren eraginkortasuna handitzeko”.

Nabarmentzekoak dira, berrikuntza dakarten aldetik, txanda libreko hautaketa-prozeduretarako emakumeen alde ezartzen diren ekintza positiboko neurriak, zenbait egoeratan emakumezko hautagaia gizonezkoaren gainetik hobestea ekarriko baitute, Europako Erkidegoko jurisprudentziak lege-neurriek, proportzionaltasunari eta arrazoizkotasunari buruz ezarten dituen eskakizunen kontra jo gabe.

Hala, bada, lege-mailako arau batean ezartzen da neurri hori. Arrazoizkoa da, mugatu egiten baitu txanda libreko sarbidea, eta diskriminazio egitazteko eta historiko bat arintzeko ez ezik, polizia-zerbitzua eraginkortasunez emateko emakumeen masa kritiko baten eskakizunari erantzuteko ere bada. Proporzionatua ere bada, lehentasuna modu subsidiarioan eta murriztuan aplikatzen delako, hautatutako emakumezko hautagaiaren eta bazter utzitako gizonetzko hautagaiaren arteko nolabaiteko gaitasun-baliokidetasuna ere bermatuz beti, lehentasuna aplikatzeko orduan. Eta, gainera, salbuespenezko neurria ere bada aldi baterako den aldetik, ez baita aplikatzen jarraituko, emakumeak dena delako kidego, eskala eta kategorian % 33 izatera iritsitakoan. Neurri horren xedea ez da sexuen arteko parekotasuna, baizik eta emakume kopurua gutxienez masa kritiko jakin batera iristea (%33).

Laburbilduta, legean jaso da emakumeentzako sustapen-planak egin behar direla planifikazio-aldi jakin baterako, eta, horrez gainera, neurri espezifikoak hartu ahal izango direla emakumeen alde dagokiena baino ordezkari-tza urriago hori zuzentzeko, egoera horrek irauten duen bitartean. Sustapen-plan horiek lantzen diren bitartean, gutxieneko portzentajea ezingo da izan % 25 baino txikiagoa, betiere hiru plaza baino gehiagorako deialdia egiten bada.

Agente eta komisariordetarako txanda libreko deialdietan, berriz, puntuazioa berdina bada edo puntuazioaren arteko aldea % 15etik gorakoa ez bada, emakumezko hautagaia aukeratu ahal izango da % 25 horretara (edo egiten direnean, sustapen-planetan jasotako ehunekora) iritsi arte, izangaien zerrenda bakarra errespetatuta. Adierazi behar da urteetan zehar, legean jasota dagoen arren, inoiz ez dela, orain arte, sarbidea txanda librearen bidez egin komisariorde kategoriarako.

Legearen aldaketa honekin “kuota ez zurrunen” alde egiten da.

47 bis artikulua:

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren kidegoak beren mende dituzten administrazioek bermatuko dute Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritako aurreikuspenak aplikatuko direla kidego horietako lanpostuak eskuratu, bete eta sustatzeko hautaketa-prozesuetan, segurtasuneko zerbitzu publikoan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatuz.

2.- Polizia-kidegoetan emakumeen presentzia sustatzeko planak egingo dira, kidegoetan sartzeko orduan eta lanbide-karreran emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna bermatzearen.

Plan horiek ezarriko dute, dagokion plangintza-aldirako, emakumearen ordezkari-tza eskasa zuzentzeko nahiz polizia-eraginkortasuna handitzeko plantillan lortu nahi den emakume-portzentajea, bai eta polizia-eraginkortasuna handitzeko neurriak ere; orobat, emakumeen aldeko berariazko neurriak ezarri

ahal izango dituzte, egitatezko desberdintasun nabariak zuzentzeko, oraindik ere baldin badaude.

Neurri horiek bidezkoak eta neurrizkoak izan beharko dute lortu nahi den helburuaren aldean.

3.- Hautaketa-prozeduretako sailkapenean puntuazioan berdin geratzea gertatuz gero, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritako irizpideen arabera ebatziko dira berdintzeak, lege horretan aurreikusitako kasuetan.

4.- Poliziako agentearen eta komisariondokoaren kategorietan txanda irekiaren arabera zartzeko hautaketa-prozeduretan, emakumeek zenbat plaza bete behar dituzten zehaztu behar da, segurtasunaren zerbitzu pulikoan emakumeen eta gizonen presentzia orekatzeko xedea iriste aldera sustapen-planean aurreikusitakoari jarraituz.

Plaza kopuru hori, beraz, iritsi nahi den helburuaren araberako proportzioan eskainiko da, eta ezingo da izan deialdian eskainitako % 40 baino gehiago; halaber, ezingo da izan emakumeak sustatzeko planei eta hautaketa-prozeduretan parte hartzen duten eta prozedura gainditzen duten emakumeen estatistika-datu historikoei jarraituz arrazoiz ezarritako portzantajea baino txikiagoa.

Oro har, emakumeen aldeko sustapen-plan horiek ezartzen ez diren artean, gutxienerako portzantajea ezingo da izan %25 baino txikiagoa, betiere hitu plaza baino gehiagorako deialdia egiten bada.

5.- Aurreko paragrafoan aipatzen diren hautaketa-prozeduretan, deialdian eskainitako lanpostu hutsak esleitzeko orduan, izangaien behin betiko zerrenda bakarrari jarraituko zaio, hain zuzen ere, zerrenda horretan ageri den puntuazio-hurrenkerari eta berdintzeak ebatzeko legez ezarritako irizpideei jarraituz.

Aurreko paragrafoan xedetzat aipatzen den portzantajea ez bada iristen goragoko paragrafoan xedatutakoari jarraituz, emakumezko hautagaiak lehenetsiko dira xedera iritsi artean, betiere:

a) Hautaketa-sistemako oposizio-aldiko probak eta ariketak gainditu izanak gaitasu-nean baliokidetasuna badakar.

b) Lehentasun hori aplikatuz hautatzen diren emakumezko hautagaien eta atzera geratzen diren gizonezkoen arteko puntuazioaren arteko aldea ez bada % 15 baino handiagoa, ez oposizio-aldian, ez eta, hala behar balitz, lehiaketa-aldian ere –betiere hautaketa-sistemaren arabera.

c) Beste hautagaiari ez badio eragiten neurri hori ez aplikatzeko legezko ezein salbuespenak, nahiz eta sexual dela-eta diskriminaziorik eragiten ez dutenen artekoak izan, hala nola enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetakoak izatea.

6.- Aurreko atalean aipatzen den lehentasun hori aplikatzeko, beharrezkoa izango da hautaketa-prozesuaren deialdian eskaintzen diren lanpostuei dagozkien kidego, eskala eta kategorietan emakumezko funtzionarioak % 33ra ez iristea».

Polizia-kidegoetan berdintasunezko neurriak eta emakumezkoen presentzia sustatzeari buruzko aurreko atalean jaso ez diren eta Ertzaintzarekin erlazionatuta dauden beste alderdi batzuen laburpen orokorra

- ✓ Poliziaren Etikaren Kode Europarra integratzen da.
- ✓ Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordea sortzen da.
- ✓ Diziplina-erregimena aldatzen da:

Sexu-jazarpenarekin, jazarpen sexistarekin eta laneko jazarpen errepikatuarekin zerikusia duten falta berriak sartzeko dira, oso astunak, bai eta polizia-bideokamerak erabiltzeko araudiari eginiko arau-hausteak ere.

Zehapenak aldatzen dira.

- ✓ Hautatzearekin eta polizia-kidegoetan sartzearekin erlazionatutako alderdiak aldatzen dira:

38 urtera arte luzatzen da sartzeko adina.

- ✓ Ertzaintzako karrera profesional horizontala arautzen da:

Lanpostua aldatu beharrik gabe garapen profesionalaren mailan aurrera egiteko aukera gisa ulertuta.

- ✓ Barne-sustapena bultzatzen da:

Goragoko kategoria batera igarotzeko zerbitzuan bete beharreko urte kopurua gutxitzen da.

- Agente lehenen kategorian sartzeko, hiru urte egiazko zerbitzuetan oinarritzko eskalako agente gisa.
- Ikuskapen-eskala, lau urte egiazko zerbitzuak egiten oinarritzko eskalako kategoriaren batean.
- Eskala betearazlea, lau urte egiazko zerbitzuak egiten ikuskapen-eskalan, horietako bi gutxienez ofizial kategorian.
- Goi-eskala, lau urte egiazko zerbitzuak egiten eskala betearazleko kategoriaren batean.

Superintendente kategoria kentzen da.

Bertan behera uzten da barne-sustapeneko prozeduretan parte hartzeko hiru deialdiko muga.

Aurkezteko aukera emango zaie eszedentzian dauden Ertzaintzako funtzionarioei, eszedentzia hartzeko arrazoia bada haurrak edo senitartekoak zaintzea, genero-indarkeria edo zerbitzu bereziak.

Ertzaintzako espezialitateen erregimena arautzen da, ezagutza espezifikokoak dituzten zereginetarako. Espezializazioa behar duten lanpostuek gutxieneko eta gehieneko presentzia-denbora eduki ahalko dute.

✓ Beste batzuk:

Buruzagitza-osagarria sortzen da eskala goreneko eta betearazleko postuetan.

Izendapen libreko postuen gehieneko ehunekoak ezartzen da.

Adina dela-eta egokitutako zerbitzu aktiboa arautzen da.

Gaitasun psikofisiko nahikorik ez dutelako bigarren jardueran aritzen diren polizien egoera arautzen da.

Kondekorazioak eta ohorezko sariak emateko erregimena aldatzen da, eta zerbitzu-ekintzan hildako funtzionarioak edo erretiroa hartu dutenak goiko kategoriara ondorio ekonomikorik gabe eta ohore gisa igarotzeko aukera jaso da.

Poliziako funtzionario erretiratuek uniformeak jantzi ahalko dute ekitaldi instituzional eta sozial hotsandikoetan, eta agiri profesionala gorde ahalko dute.